

Ayesak eta Kutxabankek hitzarmena sinatu dute ETEen eraldaketa digitala bultzatzeko

- Konpainiak gauzatutako proiektu teknologikoak finantzatuko ditu banku-entitateak.

2024ko urtarrilaren 10ean. Ayesak, teknologia- eta ingeniari-tza-zerbitzuen hornitzaile globalak, Ibermática filialaren bitartez, lankidetzak hitzarmena sinatu du Kutxabankek, ETEen eraldaketa digitala bultzatzeko. Horrela, konpainiak gauzatutako proiektu digitalak finantzatuko ditu entitateak.

Horri esker, Kutxabankek konpainia horiei finantza-erraztasunak eskainiko dizkie beren prozesuak digitalizatzeko interesa duten enpresa txiki eta ertainek zerbitzu hori kontrata dezaten, "beren lehiakortasun-egoera hobetzen laguntzeko helburu argiarekin". Era berean, Ayesak aukera hori emango die bezeroei balio erantsi gisa, eta horren bidez beren proiektuei azkarrago ekin ahal izango diete.

Lankidetzak hitzarmenak eremu geografiko nazionala du, eta Microsoften software-soluzioak ezartzeko proiektuak jasotzen ditu, eta hainbat zerbitzu barne hartzen ditu: konponbidearen hedapena bera, hobekuntza-ekintzak egiteko euskarria, mantentze zuzentzailea edo ebolutiboa, etab.

Eraldaketa digitaleko proiektuetarako soluzioen eta produktuen katalogoa Kutxabanken webgunean dago eskuragarri, Ibermáticak informazio hori ostatzeko sortutako site edo gune batean, baita <https://www.ibermatica365.com/kutxabank/> webgunean ere.

Jabier Larrañagak, Kutxabankek Enpresetarako arduradunak, adierazi duenez, "hitzarmen hau beste urrats bat da erakundeak enpresekin duen konpromisoaren barruan. Gure helburua da haien beharrei erantzutea eraldaketa digitalaren erronkan ere, era guztietako produktuak eta zerbitzuak eskainiz hazten laguntzeko".

Bestalde, **Gustavo Melerok**, Small and Medium Enterprise merkatuko zuzendari eta Ayesako Microsoft Bikaintasun Zentroko zuzendariak, adierazi duenez, "Kutxabankek hitzartu dugun lankidetzak guretzat estrategikoa da testuinguru garrantzitsu batean, hau da, enpresa txiki eta ertainei trantsizio digitala ahalik eta gehien erraztea, ez baitago zalantzarik beren errentagarritasun- eta lehiakortasun-ratioak handitzeko behar dutela".

Ayesak web-orri bat garatu du eta hortik digitalizazio-helburu nagusiei erantzungo dieten soluzioen eta produktuen katalogoa ematen die ETEei www.ibermatica365.com webgunetik.

Ayesari buruz

1966an sortua, Ayesa teknologia- eta ingeniari-tza-zerbitzuen hornitzaile globala da, 12.000 langile ditu eta zuzeneko presentzia Europa, Amerika, Afrika eta Asiako 23 herrialdetan. José Luis Manzanares buru duen konpainiak 649 milioi euro baino gehiagoko negozio-zifra du.

ayesa



Prentsa Oharra

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.